



# FLITTER

EUROPA HUELE A MUERTO  
EUROPAK HIL USAINA DU  
EUROPE SMELLS DEAD

— DISCO TRIBUTO · OMENALDI DISKA · TRIBUTE ALBUM —

#europahueleamuerto #europakhilusainadu #europesmellsdead  
europahueleamuerto.es

una iniciativa de:



en colaboración con:



para destinar fondos a:





## “EUROPAK HIL USAINA DU” – Ongintzazko musika-egitasmoa Melillan dauden lagundu gabeko adingabeko etorkinei laguntzeko.

FLITTER musika taldeari egindako disko-omenaldi egitasmoaren aurkezpena, Prodein Melilla GK Erekin (Haurtzaroaren Eskubideen Babesa Melillan) elkartasuna adierazteko.

30 talde baino gehiago  
8 grabaketa estudioak edo gehiago  
2 bertsio argitaratugabeak  
2 Flitterren abesti berri

### AURKIBIDEA

- 3 ----- Malas Pulgasek aurkezten du...
- 4 ----- Lizarra Harrera Hiria elkartarekin lankidetzan
- 5 ----- Prodein Melilla Laguntzeko
- 6 ----- Adierazpen bateratua
- 7 ----- Harremanetarako datuak eta prentsa linkak



## **MALAS PULGASek aurkezten du...**

### **Nortzuk gara?**

Perra Flaca con Malas Pulgas Lizarran kokaturiko irabazi-asmorik gabeko Kultur Elkartea gara. Gure helburu nagusiak hauek dira: musika eta kultura ekintzak sustatu eta erraztu. Gure eginkizunaren bitartez bertako eta kanpoko artisten arteko harremana erraztea dugu asmo nagusia.

### **Flitter musika taldeari disko-omenaldi bikoitza**

2018ko otsailetik martxan dagoen diskoaren ekoizpenak Nafarroako bazter guztietatik datozen artista eta 30 baino gehiagoko musika taldeen parte-hartzearekin kontaktzen du, Iruñeako Marea, Altsasuko Los del Rayo, Lizarrako Bide Bakarra & Inaxio Basarte (Flitter ohia) eta Lizarrako Valentinos, besteak beste.

Kolaborazio bereziak eta beste lekuetako artisten parte-hartzea ere bada, Lugoko Untides, Mungiako Revolta Permanent, Zumaiako Voltaia... eta beste askoz gehiago. Diskoa 8 grabazio-estudio baino gehiagotan egingo da, abesti gehienak Arellanoko Lur eta Mungiako Gauda Estudioetan grabatuko badira ere.

Lortutako etekinak Melilla Prodein GKeri bidaliko zaizkio, Melillan baliabiderik gabe eta sekulako pobrezia baldintzetan bizi diren lagundu gabeko adingabekoei ematen zaizkien gaztelania klaseak bikoizteko. Prodeinek urtetan zehar baliabiderik gabe garatzen ari den "Melillako kaleko haurrak" egitasmoari buruzko informazio gehiago:

<https://www.youtube.com/watch?v=17-nH2ncuIU>

### **Argitaratzea / Aurkezpen ofiziala**

- Diskoaren argitalpena 2018ko urria / azaroan egitea aurreikusten da.

### **Nola aurkitu zuen Malas Pulgas elkarteak Prodein Melilla**

Musika egitasmo honen ekoizpenean hasi ginen lehenengo momentutik, europar mugen inguruan gertatzen ari den ezbehar humanitario guztia eta Gobernu eta Administaritzen kudeaketa penagarria dela eta, gure hitza altxatu eta salatzekeo beharra (edo betebeharra agian) sentitu genuen.

Orduan Lizarra Harrera Hiria GKeri musika egitasmo solidario honen ekoizpen, sustapen eta zabalkundean parte-hartzeko gonbidapena luzatzea erabaki genuen, elkarrekin lan egin eta eskura ditugun baliabide guztiak partekatzeko. Prodein Melillaren egitasmoari dirua bidaltzea proposatu ziguten, Melillan kalean nekez bizi diren lagundu gabeko adingabeko etorkinekin lan egiten dutela. "Europako hegoaldeko muga" izanda eta adingabeko hauentzako laguntza hain beharrezkoa izanda ez genuen zalantzarik izan: gure irudikatutako xedea zen.

### **Ekintzak, hedapena, zabalkundea**

- **2018ko Ekainaren 23an. UDAFEST** Lizarrako Los Llanos parkean. Artisauen Elkarteak, Festagirok, Malas Pulgas elkarteak, Larraizar taldeak, Harrera Hiriak, Prodeinek eta abarrek antolatuta festa eguna ospatuko da, egun eta gauetz, zenbait ekintza egingo direla, besteak beste: artisauen azoka, antzerkiak, ipuin kontalaria, kontzertuak, dantza, musika eta sua ikuskizunak, elkartasun egitasmoari buruzko informazio guneak, kalejira, San Juan suak, eta abar.

- **2018ko abenduaren 1etan. Aurkezpen ofiziala** Lizarran egingo da, Flitter taldearen parte-hartzearekin, diskoan agertzen diren bi musika taldeen laguntzarekin, baita diskoan parte hartu duten eta egun horretan etorri ahal diren artista guztiekin.

### **Sarrera eta CD salmenta**

Oso laister aurrera web orrialdean eta egitasmoaren profil sozialetan aurkezpen kontzertuaren sarrerak eta ekimena laguntzeko beste produktu batzuk salgai jarriko dira.

Sarrerak / Informazioa: <http://www.europahueleamuerto.es>

Facebook: <https://www.facebook.com/europahueleamuerto/>

## **...LIZARRA HARRERA HIRIA elkartearekin lankietzan:**

### **Nortzuk gara?**

Lizarra Harrera Hiria Estatuko eta Nafarroako zenbait herri eta hirietan sortutako Harrera Hirien sarearen partaidea da, eta 2014 urtetik aurrera Lizarra “babesleku hiria” izan dadin lan egiten ari da.

### **Malas Pulgasekin lankidetzak, musika egitasmoa**

2018ko otsailaren hasieran Malas Pulgas Kultur Elkarteak bere egitasmoa aurkeztu zigan (elkarrekin lan egin eta parte hartzeko gonbidatuz). Musika eta artelanaren konbinazio ezin hobek eta, era berean, bertako kulturaren babesle izateak, diseinu grafikoak, disko zein kanpainaren izenburuak (“Europak hil usaina du”) gizarte-salaketa asmo argiarekin eta hizkien edukiak kexa mezuak zabaltzeko baliabiderik ezin hobea izateak erabat erakarri gintuen. Bazter guztietako eta kalitate handiko artista eta musika taldeek interpretatutako abestiak, hori guztia bizirik irauteko jatorrizko herrietatik alde egin behar duten pertsonen laguntzeko dirua lortzeko xede argiarekin. Inguruko rock historia erabat aldatzen zuen musika egitasmo baten aurrean geundela argi eta garbi ikusi genuen, Lizarra Harrera Hiriaren elkartasun kausarekin bat egiteaz gain.

### **Prodein Melilla, elkartasun egitasmoa**

Proposamena oso gustura onartu genuen eta lortutako diru guztia “Prodein Melilla”ri bidaltzea erabaki genuen, urtebete baino gehiago kolaboratzen ari garen GKE da, ahal dugun neurrian hain egoera larrian bizi diren adingabeko hauen laguntzan parte hartzen.

Kultura, rock-a eta elkartasuna mugak irekitzeko eta elkarkidetasuna bermatzeko elkartzeko dira. Egitasmo hau bultzatzeko ekintza guztiak jakinaraziko ditugu eremuko bizilagun guztien artean zabaltzeko.

### **Ekintzak, hedapena, zabalkundea**

Diskoa argitaratu eta abenduaren 1an aurkezpen ofiziala egin arte, Malas Pulgas eta Prodeinekin batera lan egingo dugu egitasmoaren zabalpenean zein diru-bilketan ondoren aipatuko ditugun ekintzen bidez, eta aurrerago egingo ditugun beste batzuen bidez, besteak beste:

- **2018ko Abuztuaren 8an**. Elkartasun herri bazkaria Lizarrako jaietako asteazkenean Santiago enparantzan, Lizarra Harrera Hiria-k antolatua, Malas Pulgas-en laguntzarekin, musika zuzenean eta giroa izango direla goiz eta arratsalde.

## **...PRODEIN MELILLA laguntzeko:**

### **Nortzuk gara?**

Orain dela 20 urte baino gehiago Prodein (Protección de los Derechos de la Infancia Melilla) Melillako Hiri Autonomoan irabazi-asmorik gabeko elkarte hiriko kaleetan bizi ziren ehundaka adingabekoei erantzun bat emateko asmoarekin sortu zen.

Hortik abiatuta, eta Melillan nortasun agiririk gabekoei laguntzen dien giza erakunde bakarrenetako bat izanda, lan sarea zabalagoa egiten joan gara, eta guregana hurbildu diren legezko estatusa falta duten pertsona guztiei laguntzen saiatu gara.

### **Zer egiten dugu?**

- Pertsonen bizitza hobeto baten bila laguntzen saiatu, haien egoera salatuz eta gure atera hurbiltzen diren guztiei ahalik eta hoberen lagunduz.
- Osasun zerbitzuetan, lege babesean eta hezkuntzan lekua izan dezaten sareak sortzen ditugu.
- Jai eta kirol topaketak antolatzen ditugu haurrek jolastu eta oraindik haur direla gogoratzeko.
- Afari beroak banatu eta, era berean, kalean bizitzean sortzen diren zauriak sendatzen ditugu.
- Gaztelania klaseak ematen dizkiegu adingabeko hauei.

### **Zer egingo dugu jasotako diruarekin?**

Gure helburu nagusia hau da:

- Eskaintako saioak bikoiztu haur gehiagora iritsi ahal izateko, gaur ditugun diru-baliabideekin ez baita nahikoa..

### **Proposamenak eta baliabideak:**

Lehenbizi, gaztelania eskolak parte-hartzeko metodologian eta ahozko hizkuntzan trebatzeko oinarrituta eskaintzea, esperientzia praktikoak direla medio. Egitasmoa irailaren 11an hasi zen, astean ordu bateko hiru saioak eginda (asteazken, ostegun eta ostiraletan). 8 gazte etortzen dira sarritan.

Eskoletan adingabekoetan espezializatua dagoen irakaslea eta kaleko umea izandako bitartekaria (gaur egun adinduna) egoten dira, hizkuntza berrira hurbilketa errazteko, adingabekoen agertzea ziurtatzeko eta parte-hartzaileen arazoetan laguntzeko.

Giza baliabideak:

- Irakaslea (gaztelania irakaslea).
- Bitartekaria (MENA ohia).

Material baliabideak:

- Aretoa (Hiri erdian kokatua, bertara etortzea errazago izan dadin).
- Digitalak: wifi-konexioa, ordenagailu bat eta proiektore bat.
- Suntsikorrak: Arkatzak, boligrafoak, koadernoak, eta abar.
- Gosariak prestatzeko beharrezko guztia.

## **Adierazpena: Malas Pulgas, Harrera Hiria eta Prodein**

Etorkinen harrera eta immigrazio politikak behar diren mailan ez egoteaz gain milioika pertsonen egoera larria okertzeko eta hobera egiteko aukerak murrizteko balio dutela uste dugu.

Europar estatuen jokabidea lotsagarria iruditzen zaigu, are gehiago Siriako errefuxiatuak eta Melillako adingabeko hauek pasatzen ari diren egoeretatik, batzuk aipatzeagatik, orain dela ez hainbeste Europan ere pasa genuela kontutan hartzen badugu. Gure aitonen belaunaldikoak tamaina honetako egoerak pasa zituzten haurtzaroan. Gure buruari galdetzen diogu nola onartzen ditugun erruki eta elkartasun falta hauek, uste baitugu baliabide soberan ditugula pertsona hauen premiei behar bezala erantzuteko.

Bertako, probintziako, estatuko zein europar eremuko gobernuak salatzen ditugu. Herritar mugimendu batzuek, ia baliabiderik gabe lan handia egiten dutenak, gure agintarien arduragabekeria eta konpromiso eza agerian uzten dute gizaldekoko egoera larri honen aurrean.



## Harremanetarako datuak

### **Perra flaca con Malas Pulgas**

Txomin Bengoa - 620 47 92 13 | [info@malas-pulgas.com](mailto:info@malas-pulgas.com) |

[WWW](#) | [Facebook](#) | [Instagram](#) | [Youtube Channel](#)

### **Lizarra Harrera Hiria**

Miguel Ángel Beriain - 618 69 83 65 | [beriaain.sanz@gmail.com](mailto:beriaain.sanz@gmail.com)

[Facebook](#)

### **Prodein Melilla** (Protección de los Derechos de la Infancia)

Ariane Irure - 680 85 41 51 | [arianeirure@gmail.com](mailto:arianeirure@gmail.com)

[Twitter](#) | [Vimeo](#) | [Blogspot](#)

## Prentsa linkak

**Deskargak:** PDF Prentsa oharra, irudiak, dokumentazio ofiziala

<https://www.malas-pulgas.com/europahueleamuerto/prensa/>

**Hashtags** [#europahueleamuerto](#) [#europakhilusainadu](#) [#europesmellsdead](#)

**Linkak** [WWW](#) | [Facebook](#) | [Youtube List](#)

